

Ezpalak

JON TORNER

Miren Agur Meabe ren Urtebete

itsasargian liburua (Elkar) International Board on Books for Young People (IBBY) erakundeak bi urtez behin osatzen duen ohorezko zerrendan sartzeko hautatu du. Halaber, Elena Odriozolak *Begira-begira* liburuan egindako ilustrazioek ere zerrenda horretan sartzeko aukera dute. IBBY erakundea Zurichen sortu zen 1953an eta ohorezko zerrendaren helburua idazle, marrazkilari eta itzultzaileen lana goraiatztea da. Saritutako liburuak bilduko dituen zerrenda 2008ko irailean argitaratuko dute.

Oskar Arana itzultzaile arabarrak

George Orwellen 1984 nobela ezaguna euskaraz kaleratu du, Txalaparta argitaletxearen eskutik. Nobela hori XX. mendeko liburu esanguratsuenetakoa da eta Aranak adierazi duenez, berak ezagutzen duen "distopiarik indartsuena" da: "Amesgaizto batetik abiatuta, gizateria oso baten iragarpena aurkituko du irakurleak. Gizateriak nondik ez duen jo behar agertzen da liburuan. Eta hori egiten du Orwellek gizatasunaren hautemate zehatz eta aberatsetik abiatuta".

Jon Ander eta Edurne Azpitarte

anai-arreba azkoitiarrek hirugarren urtez jarraian irabazi dute Euskal Herriko Dantza Sueltoke Txapelketa. Segurako (Gipuzkoa) saioan Eneko Gil eta Nerea Vesga errenteriarak izan ziren bigarren, eta Mikel Igartua eta Ibane Baseta bergararrak hirugarren.

Carlos Ferrater

arkitekto katalanak *Geometria sinkronizatuz* erakusketa ekarri du Bilboko Arte Eder Museora. Geometriak arkitekturan duen garrantziaren isla da erakusketa. Carlos Ferrater & Asociados estudioak egindako 12 maketa eta 34 panelek osatzen dute eta uztailaren 15 arte izango da ikusgai.

Lantz

taldeak lehen diskoa kaleratu du. Garbiñe Insausti, Olatz Prat eta Oihana Lekuonak (ahotsak), Mikel Errazkinek (teklatuak, sanplerrak eta programazioak), Xabi Lopezek (gitarra akustikoa), Alaitz Telletxeak (trikitia), Josean Martin Zarkok (bouzouki, gitarra akustikoa eta mandolina) eta Juan Ezeizak (biolina, txirula, alboka) osatzen dute taldea. Folk garaikidea eta tradizioa uztartzen dute.

Mugimendudun irudirantz erakusketa ikusgai Zarauzko Photomuseum zentroan



Zarauzko Photomuseum Argazkiaren Euskal Museoan *Mugimendudun irudirantz* izeneko erakusketa lehen zatia izango da ikusgai uztailaren 22a arte. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoa Donostia Kutzak

lpar Euskal Herriko familia bati erositako tresna eta argazkiek osatzen dute erakusketa. Lehen erakusketa horretan, argazkigintzaren hastapenetara garamatzaten 45 objektu mota aurki ditzakegu: praxinoskopioa (argazkian), fisionotrazioa, fenakitoskopioa, zootropoa, grafoskopioa... Objektu bakoitzaren historiaren inguruko informazioa ere bildu dute museoako arduradunek. Bestalde, Photomuseumek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako akordioaren berri eman zuen atzo (18). Hitzarmen horri esker, urteko 48.000 euroko laguntza jasoko du museoak. Informazio gehiago: www.photomuseum.name.

Donostia Hiria literatur saria

50 URTE beteko ditu datorren urtean Donostia Hiria Kutxa Literatur sariko gaztelaniazko alorrak, eta dagoeneko zabalik dago euskarazko eta gaztelaniazko antzerki eta ipuinen lehiaketan parte hartzeko epea. Urriaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero www.kutxasocial.net web gunean sar zaitezte.

Baserriaren interpretazio zentroa zabaldu dute Igartubeitin

EKAINAREN 23AN euskal baserriaren interpretazio zentroa zabaldu zuten Ezkio-Itsasoko (Gipuzkoa) Igartubeiti baserrian. Zentroa museoaren osagarri izango da. XVII. mendeko baserriaren bizimodua ezagutzeko aukera eskainiko die bisitariak. Besteak beste, erakusketa aretoa, erabilera anitzeko gunea, denda eta txotx gunea jasoko ditu zentroak.



Udazkenean erabakiko dute EAEko Liburutegien Legea onartu ala ez

EUSKO LEGEBILTZARREKO batzorde txostengilean EAEko Liburutegi Legea adostu dute, alderdi guztiek aurkeztutako zuzenketa gehienak onartu ostean. Gauzak horrela, udazkeneko osoko bilkuran eztabaidatuko dute lege egitasmoaren inguruan, eta orduan erabakiko dute onartu ala ez. Lege egitasmo horrekin, Kulturaren Euskal Planak aurreikusten dituen beharrak ase nahi ditu Eusko Jaurlaritzak.

Yugonostalgiaz

El Ministerio del Dolor, Dubravka Ugresic
(Anagrama 2006)

"Gutarrak aurpegian zaplasteko ikusezin bat zeukatela zebiltzan han hemenka". Zaplasteko ikusezin bat. Gerra, garbiketa etnikoa, bortxaketak. Zaplasteko ikusezin bat, bizirik ihes egitea lortu duenarentzat. Ispilu yugoslaviarra hautsi zenean mendebaldeko Europara ihes egin zuten gazteak dira Dubravka Ugresicen *El Ministerio del Dolor* nobelako protagonistak.

Ihes hori, lekualdaketa soiletik harago, denboran egindako bidaia bihurtuko da Tanja Lucic protagonistarentzat. *Yugonostalgia*k jota bizi da, iraganean, bere herrialdea zenaren puskak berriz josi nahian. Amsterdamgo unibertsitatean serbo-kroazierar literatura irakasten du eta bera bezala Balkanetako odol iturritik ihes egin duten gazteak ditu ikasle, matrikulari esker Herbehereetan bizitzen jarraitzeko baimena dutelako.

Herrialde berekoak zireneko garaiak gogoratzen saiatuko dira eskoletan. Gastronomia, pop kanta, haurtzaroa. Baina pixkanaka ispiluaren puskak lurrera jausten joango dira. Deserrian bizitza berria eraikitzeak iragana ahaztu beharra eskatzen duelako. Gerra ahaztea, baina batez ere Yugoslavia izeneko leku bat existitu zela. Dolua eratu

beharra, Freudek esango zukeenez.

Heriotza sinboliko hori –Yugoslaviarena– onartu behar eta ezina islatzeko Ugresicek genero eta baliabide arteko nahasketa bilatu du. Nobelak badu saiakeratik, poesiatik, koadro kostunbristatik –batez ere Herbehereetako bizimoduaz diharduen kapituluetan– eta meta-literaturatik, baina ez da horregatik nola hala jositako adabaki bilduma bihurtzen, seguruena istorioa kontatzeko erabili duen lerro nagusia lineala izateari esker.

"Bigarren Mundu Gerraren ondoren Filipinetako irletan galdu ziren soldadu japoniarrak bezalakoa nintzen" dio protagonistak liburuaren bukaera aldera. Urteetara oraindik gerrak jarraitzen zuela sinesten zuten horiek bezalakoa, alegia. Askoren gaitza. Eta ez naiz Yugoslavia galduren penetan daudenez bakarrik ari.



Dubravka Ugresic

GORKA BEREZIARTUA

Ibon Aranberri artistak *Gara* egunkarian: «Nik ez dut kulturaren popularizazioan sinesten, publikoak hezia behar du izan eta lehendik obrarekiko iritzi edo begirada kritikoa eduki behar du.ELITista-edo kontsidera daiteke, baina kontuan hartu behar dugu dena ez dagoela publikoari begira eginda eta nire kasuan, neure lanaren intentsioa da niretzako lehendabizikoa».

Koldobika Jauregi eskultoreak *Irutxuloko Hitzan*: «Ez dut uste obrak norberarentzat egin behar direnik. 17 urterekin jendearengan sorsopresa sortzeagatik egiten nituen lanak eta hori ez da sana. Gai orokorrak jorratu behar dira, ez norberari burutik pasatakoak. Gai orokorrekin jendea elkartu egin daiteke. Bakoitzaren burutazioak ez zaizkit interesatzen».

